

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (9, 10, 11...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

AUTO ELEKTRIKOA

Autoa aldatzeko asmoz bazabiltza, baliteke zalantza izatea errekontza bidezko bat aukeratu (gasolina edo diesela) edo auto elektriko bat. Bi horien tartean, dena den, badira bestelako aukera batzuk ere, adibidez, auto hibrido bat erostea edo gas bidez dabilena. Hautatu aurretik, kontuan hartzea zer-nolako erabilera emango diogun da adituen gomendioa. Hori dela eta, hirirako auto bat nahi baduzu, aukera ona izan daitezke elektriko edo hibrido. **9**

Auto elektrikoen inguruko eskaria asko handitu da azken urteetan, eta handitzen eta handitzen ari dira ibilgailu mota horien matrikulatzeak. Espainiako estatuan 40.000 auto elektriko daude gaur egun. **10** Adituek uste dute 2020. edo 2023. urtetik aurrera etorriko dela auto elektrikoaren edo hibridoaren egiazko booma. Une honetan arazoetako bat da karga-lekuak urri samarrak direla, batez ere, hiri handi batetik irteten zarenean. **11** Gaur egungo autoek 400 kilometro egin ditzakete, eta sei eta zortzi ordu artean behar izaten dituzte bateriak betetzeko. Gainera, auto elektrikoak bidea egiteko, eskaria behar da. **12** Norvegian, berriz, elektriko da bost autotatik bat.

Hori guztia kontuan hartuta, auto-ekoizleek diote ohiko erregaiekin dabilen autoak ez direla deabrutu behar. **13** Dieselaren beheraldiak, ordea, kezka sortu du sektorean; eta gainbehera horren errua, neurri batean, auto zaharren isuri kutsatzaileen ospe txarra da. Automobil eta Kamioi Ekoizleen Espainiako Elkarteak (Anfac) egindako kalkuluen arabera, 12 urte baino gehiago dituzten 400.000 diesel desagertuko balira errepideetatik, % 80 murriztuko lirateke gas kutsatzaileen isuriak.

Baina eztabaida horren gainetik, ezin da ahaztu arauak daudela. **14** Ekoizleen esanetan, gaur egun lantegietatik ateratzen diren ibilgailuek betetzen dute muga hori, baina ez ibilgailurik zaharrenek. Dieselak eta gasolinazko autoak bidegurutze batean daude. Parisko Hitzarmenak dio (klima aldaketaren aurkakoa da) 2050. urterako % 80 eta % 95 artean murriztu behar direla berotegi efektuko gasen isuriak. Eta Europako gobernuak erregai fosilekin dabilen ibilgailuei begira hasi dira. **15** Espainiak, oraingoz, ez du egin halako apusturik. Baina horrek ez du eragotzi zenbait hiritan neurriak hartzen hastea. Madrilek, adibidez, poluzio-egoera batzuetan galarazi die zirkulazioa 2000. urtea baino lehenagoko gasolina autoei eta 2006a baino lehen matrikulatutako dieseiei.

Auto hibridoaren sailean, egia esan, ia denetarik sartzen da: motor teknologia iritsi berrien zati handi bat, auto elektrikoak, baita gas natural konprimatuarekin edo petrolioaren gas likidotuarekin dabilzanak ere. Teknologia konbinatzen dituzte. Gasarekin dabilen ibilgailuak ere aukera bat izan daitezke mugikortasun jasangarrirako, batez ere, ibilgailu astunetan (kamioiak eta autobusak). Prezioa dute alderdi on bat: dieselek edo gasolinazkoek baino 1.500 euro gehiago balio badute ere, elektrikoak baino askoz merkeagoak dira. **16** Mugikortasunerako Gas Naturalaren Iberiar Elkartearen arabera, Espainian 8.400 ibilgailu inguru dabilen gas natural berritzagarriarekin eta 50.000 inguru petrolioaren gas likidotuarekin.

Consumer aldizkaria, 2018ko abendua. Egokitua

2. ariketa. Txertatu testu zatia

- A. Eta gasarekin dabiltzanak aintzat hartzea ere komeni dela diote, merkeagoak izateaz gain, gasolinazkoek edo dieselek baino gutxiago kutsatzen baitute.
- B. Gainera, kontuan hartu behar dugu gutxiago kontsumitzen dutela, erregaia merkeagoa dela eta isuriak murriztu egiten dituztela.
- C. Horien artean, baditugu erabat elektrikoak, bateriarekin mugitzen direnak, eta entxufe bidezko hibridoak, erregaiarekin dabilen motorra eta motor elektrikoa dutenak.
- D. Dena den, ezin da ahaztu auto-ekoizleak auto elektrikoen alde egiten ari diren apustua eta, horretarako, ikerkuntzan inbertitu duten dirutza.
- E. Frantziak 2040. urtean jarri du muga eta hortik aurrera ezingo dira saldu; Norvegiak eta Alemaniak ere bide beretik jo dute.
- F. Baina erabilera mistoa, hirian eta errepidean, eman nahi izanez gero, agian hobe izango litzateke betiko aukerarekin gelditzea, errekuntza bidezkoarekin alegia.
- G. Estatuan oraindik nahiko txikia da, ez da % 0,5era iristen, eta zifra horrekin, mendebaldeko herrialdeen azken lekuetan dago.
- H. Europako Batasunak gehienez ere 168 miligramo nitrogeno oxido (NOX) onartzen ditu kilometro bakoitzeko dieseletan.
- I. Auto-markak, dena den, gogor ari dira lanean bateria berriak sortzeko, gero eta autonomia handiagoa izango dutenak eta azkarrago kargatuko direnak.

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatia								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau **ez da jaso behar erantzun-orriran**.